

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

147

EBAZPENA, 2022ko urtarilaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailatza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen kompetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak atzeman dira honako ebazpen honetan: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailatza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen kompetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Ebazpena 2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 262. zenbakian. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

– 2021/6484 (37/11) orrialdean, 8. artikulua 5. apartatuan, honako hau dioenean:

«5.– Prozesuan, 5.3 artikuluan entitate eskatzaileentzat aurreikusitako dirulaguntza-mugak hartuko dira kontuan.

Espezialitate bakoitzeko lurraldeka onets daitezkeen prestakuntza-ekintzen gehieneko kopurua honako hau izango da: 8 Bizkaian, 7 Gipuzkoan, eta 6 Araban. "FCOI08-Ekintzailatzarako oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak" espezialitatearen kasuan, gehienez 20 prestakuntza-ekintza onetsiko dira Bizkaian, 18 Gipuzkoan eta 16 Araban».

Hau esan behar du:

«5.– Prozesuan, 5.3 artikuluan entitate eskatzaileentzat aurreikusitako dirulaguntza-mugak hartuko dira kontuan.

Espezialitate bakoitzeko lurraldeka onets daitezkeen prestakuntza-ekintzen gehieneko kopurua honako hau izango da: 8 Bizkaian, 7 Gipuzkoan, eta 6 Araban. Honako espezialitate hauen kasuan "FCOI08-Ekintzailatzarako oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak", "FCOI10-Informazio digitalaren bilaketa eta kudeaketa - Oinarritzko maila", "FCOI11-Informazio digitalaren bilaketa eta kudeaketa - Tarteko maila", "FCOI12-Informazio digitalaren azterketa – Maila aurreratua", "FCOI13-Informatikaren eta oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak" eta "FCOI14- Informatikaren eta enplegurako oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak", gehienez 20 prestakuntza-ekintza onetsiko dira Bizkaian, 18 Gipuzkoan eta 16 Araban».

– 2021/6484 (37/22) orrialdean, 19. artikuluaaren bigarren paragrafoan, honako hau dioenean:

«Ildo horretan, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitateek finantzaketa horren jatorria-
ren berri eman beharko dute jarduketaren publizitatean, eta ikusteko moduan egiten dela bermatu
beharko dute. Hala badagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren identifikazio grafikoaz eta
Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra
eta finantzaketa-adierazpena txertatuko dituzte, non hau adierazi behar baita: "Europar Batasunak
– NextGenerationEUK finantzatuta". Herritarrei laguntzeko San Antonio kaleko bulegoaren este-
kan eskuratu ahal dira elementu horiek. Ikusgarri egite hori, bereziki, prestakuntza gauzatzen den
lokaletan, sortutako material didaktiko guztietan eta bestelako materialetan, eta prestakuntza-ekin-
tzak eta horien emaitzak sustatzen direnean egingo da; hartara, informazio koherente, eraginkor
eta proportzionatua emango zaie hartzaile askori, komunikabideak eta publikoa barne».

Hau esan behar du:

«Ildo horretan, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitateek finantzaketa horren jatorria-
ren berri eman beharko dute jarduketaren publizitatean, eta ikusteko moduan egiten dela bermatu
beharko dute. Hala badagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren identifikazio grafikoaz eta
Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra
eta finantzaketa-adierazpena txertatuko dituzte, non hau adierazi behar baita: "Europar Batasunak
– NextGenerationEUK finantzatuta". Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: [https://
planderecuperacion.gob.es/identidad-visual](https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual). Ikusgarri egite hori, bereziki, prestakuntza gauzatzen
den lokaletan, sortutako material didaktiko guztietan eta bestelako materialetan, eta presta-
kuntza-ekin-tzak eta horien emaitzak sustatzen direnean egingo da; hartara, informazio koherente,
eraginkor eta proportzionatua emango zaie hartzaile askori, komunikabideak eta publikoa barnean
direla».

– I. eranskinean-Espezialitate Programagarriak, 2021/6484 (37/26) orrialdean, «FCOI08-Ekin-
tzailtzarako oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak» espezialitatearen ondoren, honako
espezialitate hauek gehitu dira:

FCO	FCOI10	Informazio digitalaren bilaketa eta kudeaketa – Oinarritzko maila	1	40
FCO	FCOI11	Informazio digitalaren bilaketa eta kudeaketa – Tarteko maila	2	40
FCO	FCOI12	Informazio digitalaren azterketa – Maila aurreratua	3	40
FCO	FCOI13	Informatikaren eta oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak	1	40
FCO	FCOI14	Informatikaren eta enplegurako oinarritzko kompetentzia digitalen hastapenak	1	40

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarilaren 4a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.